

B

BARREN

TOKIKOM

A photograph of three men sitting on a tiled staircase. The man at the top has dark, wavy hair and a beard, wearing a dark long-sleeved shirt. The man in the middle is bald, wearing a dark jacket over a sweater. The man at the bottom has dark hair and a beard, wearing a dark t-shirt. They are all looking towards the camera. The background is a wall with a large, curved architectural element.

Kultur-sorkuntzak batuta

Aitor Gomez, Unai Villena eta Asier Olabarrieta



I. URTEURRENA

JUAN MELLA LAVANDEIRA

2014ko otsailaren 24an hil zen, 89 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 28,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



I. URTEURRENA

MARIA IZAGIRRE URAIN

2014ko martxoaren 1ean hil zen, 91 urte zituela.

“Betiko izango zaitugu gogoan”

Lagunak



VIII. URTEURRENA

RAMON UNTZILLA ARANBERRI

*Kaixo, Ramon
ta memorian zure irria
ta memorian zure begiak
ta memorian zure keinua
ta memorian zure izatea
ta memorian bizi zaitugu
ta memorian zure aiduru
ta memorian zaitugu katigu
ta memorian zaitugu*

Etxekoak

2007ko otsailaren 27an hil zen, 42 urte zituela. VIII. urteurreneko meza barixakuan, otsailaren 27an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



I. URTEURRENA

JESUS DE CASTRO PEREZ

*Behar dudanetan ezin naiz babestu zure besoetan,
baina badakit hor zaudela ezkutatuta nire bihotzean.
Zure irribarrea gogoan, ezin ahaztu eta ezin ikutu.
Zergatik ez zauden nirekin, ezin dut jasan, ezin dut ulertu.*

Zure koadrilakoak

2014ko otsailaren 26an hil zen,
56 urte zituela





Amaia Larrañaga

J.Luis, urte batzuk badira atal honetan idazteari ekin genionetik eta, akaso, aipatu bai baina goraiatu ez dugunez, gaurkoan *Argia* astekariaz idaztea erabaki dut, izan ere, merezi dutelakoan nago. Nire kasuan gozatzeko ez ezik, lanerako ere tresna ederra da, batez ere, maila altua duten ikasleei begira.



Jose Luis Azpillaga

Bai, gustukoa dut *Argia*, eta astero-astero irakurtzen dut interes handiz. Euskaltegian ere sarritan erabiltzen dut goi-mailako ikasleekin iritzi-artikulu interesgarrien adibideak emateko, eta ikasleek eurek ere gustura hartzen dute klasean ahozko azalpenen bat prestatzeko. Gainera, ni *Argia* zalea naiz aspalditik; izan ere, garai bateko *Zeruko Argiarekin* hasi nintzen euskaraz alfabetatzen. Ikaske-ta guztiak gaztelaniaz eginak ditut, eta gogoan dut nola biltzen ginen lagun batzuk Azpeitian Inaxio Mari Olarte irakaslearekin eta nola irakurtzen genituen *Zeruko*

Argiako artikuluak.

Orduko *Zeruko Argia* hartatik gaur egungo *Argiara* iristeko gauza asko aldatu dira, ez izena bakarrik. Harrigarria da, benetan, *Argiaren* eskaintza: gaurkotasunari lotutako astekari txukunarekin batera, *Larrun* pentsamendu aldizkaria ere jasotzen dugu hileroko, gai baten inguruko artikulu mamitsuz hornitua. Interneteko ataria ere ez da makala: ohiko artikulu eta erreportajeez gainera, dokumental eta film labur interesgarriak ere baditugu bertan.

“Gaurkoan ‘Argia’ astekariaz idaztea erabaki dut, merezi dutelakoan nagoelako”

Astea joan eta astea etorri, zenbat gai interesgarri aztertzen dituzten: *Asteko gaia* atalean zelako erreportaiak sakonak eta gizarte puripurian daudenak; aurreko astean, esaterako, amatasuna jorratu zuten, non hainbaten iritziak plazaratu zituzten; *Pertsonaia* atalean ere zeresana duten lagunak elkarriketatzen dituzte, zer pentsatua ematen dutenak. *Iritziaren leihoan* askotariko gaien inguruko hausnarketak; batzuk arinagoak beste batzuk sakonagoak, tartean, gainera, elgoibartarrenak: Odriozola, Sarriugarte eta Uxueren bertsoak. *Erdiko kaieran*, musikaz, literaturaz, antzerkiak, denbora-pasez (K. Amunarrizen txistekak irakurritan zenbat algara eder!), zientziak... ikasteko eta gozatzeko hamaika aukera; *landareen* saillean, Jakoba Errekondoren lekzioak, bai landare, bai hegazti, bai barazkien gainean, beti zerbait jakingarri. Hori da natura/bizimodu ikuskera hori, Jakoba!. Ahaztu gabe, irakurleok galderak egin ahal ditugula eta berak erantzun; *denboraren makinan* historiari lotutako zenbat kontu bitxi; *termometroan*, guk bezala, hizkuntza kontuetan arazoak dituzten munduko zenbat tokitako informazioa; zenbat elkarriketa... aberasgarri; eta, zer esan Pello Zubiriak mundu zabaleko kontu beltzei buruz ematen duen punta-puntako informazioaz *Net hurbil* saillean, askotan, honi esker jasotzen dudana informazioa ez dut beste inondik jasotzen; eta bukatzeko: *Maltzagatik*, astean pil-pilean ibili den gai baten inguruko hausnarketa.

Hau guztia paperean jasotzen dena, baina bada sarean ere: *Argia.eus*. J.Luis, zu ere *Argia* zalea al zara?

“Zaindu beharreko altxorra dugu, bai, 2019an ehun urte beteko dituen ‘Argia’”

Aldizkariaren alderdi indartsuak azpimarratzekotan, nik honakoak aipatuko nituzke: bertan idazten duten kazetari eta idazleen maila bikaina, gaurkotasuneko gaiekiko lotura eta idazle batzuen maisutasuna hizkuntzaren erabileran. Niretzat benetako gozatua da Amets Arzallus, Miel A. Elustondo, Joxerra Gartzia, Jakoba Errekondo, Angel Erro, Aingeru Epaltza eta beste askoren testuak irakurtzea.

Zorte handia dugu euskaldunok *Argia* astekaria izanda. Lan bikaina egiten dute, eta errekonozimendua ere badutela uste dut euskaldunon artean. Gainera, hor ditugu urtero banatzen dituzten ARGIA sariak ere, erreferentziatzko bihurtu direnak kazetariarentzat. Zaindu beharreko altxorra dugu, bai, 2019an ehun urte beteko dituen *Argia*. Eta, nire ustez, zaintzeko egin dezakegun gauzarik onena irakurtzea da.



MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.eus

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Webgunea: www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEA** Jairo Berbel, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi, Inma Mugertza, Ander Izagirre **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Eskaintza eta Argitalpena

LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibarko
biZi-biZiXal



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

ERAKOZTE ERAGILEAK

ERAKOZTE ERAGILEAK

GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Inoiz ez da berandu gaizki egindakoa konpontzeko

Aurreko astean Facebooken saltseatzen nengibilela zera ikusi nuen: "Emakumearen Eguna ospatzeko, CD Elgoibar eta Berdintasun Sailak emakumeen arteko futbol partida egitea nahi dute". Jokalari ohi bezala, pena handia ematen dit gaur egun nesken futbol talde bat herrian ez izateak, izan ere, bere gorabeherekin, beti nahiko fin ibili den talde bat izan dela esatera ausartuko naiz.

Bere momentuan lana ondo egin izan balitz, futbol nesken talde bat egoteko asmo zintzoa egon izan balitz, gaur egun ez ginatke egoera honetan egongo. Aipatu beharra dago ez dela lehen aldia Elgoibar nesken futbol talde gabe gertatzen dela. Jokatzeko aritu nintzen azken urtean Euskal Ligara igotzea lortu genuen, baina hainbat arrazoi tarteko, zenbait baja egon ziren taldean denboraldi bukaeran, nirea tartean. Ekiporik ez zegoen azken urterako eta inork ez zuen ezer egin taldea sendotzeko. Berdintasunaz hitz egitea nahi duzue? Haundi batean edo erregional batean taldea osatzeko jendea faltako balitz, taldea desagertzen utziko zenuten ala jendea bilatzen hasiko zineten Elgoibar eta inguruko herrietan, taldeak aurrera jarraitu ahal izateko? Bakoitzak atera ditzala bere konklusioak.

Esan bezala, nahiz eta niretzako beranduegi izan, inoiz ez da berandu gaizki egindakoa konpontzeko, baina espero dut asmo zintzoa izatea eta ez diru-laguntza jasotzeko ahalegin hutsa. Denborak esango du, "denbora da poligrafo baskarra".

Mireia Huidobro

Gauzak argitu nahian

Joan zen astean BARRENN argitaratu zuten Ertzilik baserriko Norma Pradaren elkarrizketaren harira, nik, Alfredo Etxeberria alkateak, hainbat kontu argitu nahi ditut. Elkarrizketan Norma Pradak zioen nirekin egon zela eta ez zitzaioela nire jarrera gustatu. Argitu nahi dut zapatu goizean baserri joan nintzela suhiltzaileek hala eskatuta, baina ez nintzela Normarekin egon. Suhiltzaileek eskatuta joan ginen zapatu goizean Ertzilik baserri Hirigintza Saileko zinegotzia, Udaleko teknikariak, suhiltzaileak, udaltzainak eta hainbat langile eta ni neu. Arrisku egoeran zegoelako, suhiltzaileek lanean jarraitu zezaten baserriko horma eta habe batzuk eraitsi behar ziren, eta horretarako, baserri-jabeen

baimena beharrezkoa zen. Suhiltzaileen eskaerari jarraituz, ostiralean abisatu genion Normaren senarrari zapatuan goizeko 9:00etan hara joango ginatea, eta han elkartzekotan geratu ginen. Baserri-jabeak iritsi zirenean -9:00etan geratuak ginen eta etxera deitu ostean 10:00etan agertu ziren- Oskarrekin, Normaren senarrarekin, hitz egin nuen. Elkarrizketa labur bat izan genuen zein egoeratan zeuden jakiteko, eta gaua non pasatu zuten eta jantzirik edo bestelakorik behar ote zuten galdetu nien. Jarraian suhiltzaileengana hurbildu ginen beharrezkoak ziren erabakietaz hitz egitera. Hortaz, ez dut ulertzen eta ez nator bat Normak nire jarraitaren gainean esandakoarekin eta argitaratutakoarekin. Eta gai honen harira azpimarratu eta gorai-patu nahiko nuke Udaltzaigoaren, suhiltzaileen, osasun zerbitzuetakoen, Ertzaintzaren eta gertaeraren ondorioz Ertzilik baserrian lanean ibili ziren guztiek erakutsitako ardura eta profesionaltasuna. Bakoitzak bere betebeharra bikain egin zuen.

Alfredo Etxeberria

Norma Prada andreari (Ertzilik baserri):

BARREN aldizkariko 939 zenbakian, azken zenbakian, Norma Prada andreari egindako elkarrizketa argitaratu zenuten. Pradak Ertzilik baserri izandako ezbeharrak hitz egiten zuten eta, tartean, udaltzainei eta beste larrialdi zerbitzu batzuetako langileen ahotan adierazpen iraingarriak jarri zituen. Pradak aipatzen dituen datu asko ez dira egiazkoak. Pradak sutearen lehen abisua Udaltzaigoan eman zuen, eta hamar minutu ere pasatu ez zirela, baserrian bertan geunden. Ordurako suhiltzaile eta beste hainbat zerbitzuetakoei abisua pasatuta genien. Baserri iritsi orduko, barruan ea norbait edota animaliarik ba ote zegoen galdetu genuen, barrura sartzeko presuntasuna agertuz. Suhiltzaile, Ertzaintza eta larrialdi zerbitzuetakoekin lankidetzan jardun genuen, beti egin ohi dugun moduan. Adierazi nahi dugu, Pradari inork ez ziola galdetu ea senarrarekin haserre ote zegoen eta ea etxeari su eman ote zion. Gainera, anbulantzia iritsi bitartean udaltzain batek lasaitu eta artatu zuen Prada. Eri-zainak bertaratu zirenean ere, Prada andreak uko egin zion eskaintako laguntzari eta udaltzainaren besotik helduta jarraitu zuen. Ertzain bat ere saiatu zen Prada lasaitzen.

Javier Oñederra

Elgoibarko udaltzainburua



King-Kong zubia arriskutsu geratu da: “King-Kong zubiko bi zatitan eskailerak kendu ditu Udalak, irisgarritasuna hobetzeko asmoz, baina orain bi zati horietan aldapa handiegia geratu da. Umeen aulkari bultza egiteko zailtasunak ditu jende askok, eta gurpildun aulkian ibiltzeko ere aldapa gehiegi dago”. Rikardo Garate Hirigintza Saileko arduradunak esan du zubi horrek ez zituela arauak betetzen lehen, eta orain ere ez dituela betetzen. Aldapa lehengo berbera dela esan du, baina irisgarritasun hobea duela orain. Irtenbide onena zubi berria egitea dela gaineratu du, baina momentuz moldaketa bat besterik ez dutela egin.



Mintxetako padel pista busti egiten da euria egiten duenean: “Euria egiten duenean, eta sarri izaten da, tenis pista alboan dagoen padel pista busti egiten da, eta ezin izaten da padelean jokatu. Pista alokatzeko prezioa berdina izaten da euria egiten duenean ere, baina ez ditu jokatzeko baldintzak betetzen. Denok irabaziko genuke, izan ere, euria egin arren jendea joango litzateke jokatzera”. Ramon Mugikak esan du antzemanda zutela arazoa eta konponketak laster egingo dituztela. Materialaren zain daude eta jaso bezain laster emango diote arazoari irtenbidea.



Jarlekuak Maalako parkeko estalpetik kanpo geratu dira: “Ez dut ulertzen. Horrenbeste denbora Maala estaltzeko lanean, eta jarlekuak estalpetik kanpo utzi dituzte. Nola da posible? Behin estalpea egiten hasita, jarlekuak ere estali behar ziren”. Ricardo Garatek azaldu du oraindik ez dutela obra erabat bukatu, eta jarleku berrien zain daudela. Materiala jaso bezain laster, hiruzpalau jarleku jarriko dituzte estalpean.



Txalo bat inauterietan herriko hiru pertsoez moztorrotu zirenei: “Inauterietan Edu Arrillagaz, Julen Agirrez eta Txomin Mugikaz moztorrotu ziren hiru gazteak txalotu eta zoriondu nahi nituzke. Moztorro originala eta bikaina benetan”.



Elgoibar Ikastolak eskerrak eman nahi dizkie inauterietako kalejira eta dantza saioa posible egin zuten guztiei: Udala, Garaje Esnaola, Almortza Arrillaga baserria, plazako tabernariak, txikienkin kalejiran etorri ziren familiak, eta bertaratu zineten guztiak. Hurrengo urtean ere kaleak eta plaza kolorez betetzeko lanean jarraituko dugu.



Gatzatu tailerra antolatu dute biharko Elgoibarren, hileko azken zapatuko feriako egitarauaren barruan

Elgoibarko Mintxeta atletismo taldeak hartuko du txosnaren ardura bihar

Hileko azken zapatuko feria egingo da bihar Elgoibarren, otsailaren 28arekin. 9:00etan zabalduko dute azoka, eta 14:00ak bitartean, bertako produktu onenak erosteko aukera izango da. Ohi legez, 11:00etan zabalduko dute txosna, eta hilabete honetan, Elgoibarko Mintxeta atletismo taldearen ardurapean izango da. Elgoibarko baserrietako eta herriko harategiek emandako produktuekin egindako pintxoak salduko dituzte txosnan. 12:00etan, berri, Kale Kantariak irtengo dira kantura. Kalebarren plazan hasiko dute ibilaldia, eta orduerdi beranduago, 12:30ak aldera, hasiko dute Kalebarren plazan bertan gatzatua egiteko tailerra. Eguerditik atzera, ganadu erakusketa ikusteko aukera izango da Aita Agirre plazan.



Nafarroako oliba-olioa erosteko kanpaina, martxoaren 4a arte



Proposamen berriarekin dator Errigora, Euskal Herria oinarri eta elkarlana lanabes dituen ekimen herritarra. Nafarroa hegoaldea du ardatz Errigorak, eta "euskara ofiziala ez den zonaldean" eragin nahi du, eremu horretakoak diren produktuei Euskal Herrian bidea emanaz. Kontsumo-ohiturak birplanteatu nahi dituzte, eta urrutikoen orde, urte osoan bertako jakiak kontsumitzeko ohitura sustatu. Horretarako, herriz herri eta ekoizlearen jatorrizko prezioan banatzen dituzte Nafarroa hegoaldeko produktuak, eta orain, *Eskutik eskura* kanpainaren barruan, olio eskaintzera datoz. Oliba-olio birjina estra ekologikoa (28 euro, bost litroko botila) eta oliba-olio birjina estra konbentzionala (20 euro, bost litroko botila) eskatzeko aukera izango da. Interesatuak www.errigora.eus webgunean sartuta egin ditzakete eskaerak, edo bestela, elgoibar.errigora@gmail.com helbidera idatzita. Elgoibarren, gainera, esku-orriak ere banatu dituzte Ilunpe, Viento Sur eta Orbea tabernetan eta AEKn, eta horiek beteta ere egin daiteke eskaera. Bide batez, Ilunpe tabernan oliba-olioa dastatzeko aukera ere eskainiko dute, eta bihar, informazioa banatzeko eta eskariak egiteko mahaia ere jarriko dute kalean. Eskari guztiak jaso ostean, Elgoibarko Errigorak zehaztuko du eskatutakoa banatzeko eguna, aurreko aldia egin zuten bezala.

100 urte bete ditu Santa Klara komentuko Mari Karmen moja klarisak

Ospakizun eguna izan zuten joan zen otsailaren 13an Santa Klarako klarisatarren komentuan, Mari Karmen Agirre mojak 100 urte bete baitzituen egun horretan. Hamalau neba-arrebetan gazteena da Mari Karmen eta ospakizunean lau belaunalditako senideak elkartu ziren. Agirre Tolosarra da sortzez, baina Zarautzen bizi izan zen urte askoan. 1942. urtean Portugaletera joan zen, eta duela hamar urtetik hona, Elgoibarko komentuan bizi da. Jose Maria Agirre [Xabier Lizardi goitizenez ezagunagoa] idazle eta poeta zenaren arreba gazteena da Mari Karmen, eta urtebetetze ospakizunean ez ziren Lizardiren poemak falta izan. Mari Karmenen bilobetako batek irakurri zituen Lizardiren poemak, urtaroen inguruan idatzitakoak. Arratsaldean izan zen hori, baina aurrez, eguerdian Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak eta Rikardo Garate Hirigintza zinegotziak oroigarri bat eman zioten, Udalaren izenean.



Jardunaldia **Ekonomia aztergai**



Debabarreneko EAJk ekonomiari buruzko jardunaldia egin zuen zapatuan Elgoibarren. Jeltzaleen Gipuzkoako Diputatu Nagusigai Markel Olanok, besteak beste, Gipuzkoako industria sektorea laguntzeko beharraz berba egin zuen, eta agintea lortuz gero, konpromisoa hartu zuen enpresei laguntzeko urtero 50 milioi euroko programa berezia egiteko. *Etorkizun ekonomikoa abiaraziz* izeneko zapatuko ekitaldian, Eider Mendoza eta Xabier Ezeizabarrena Batzar Nagusietarako hautagaiek eta Debabarrenako zenbait Udaletako jeltzaleen zerrendaburuek parte hartu zuten, tartean Ane Beitiak (Elgoibar), Eva Juez (Eibar), Iker Aldazabal (Sorluze), Jose Angel Lizardi (Mutriku) eta Cristobal Del Corte (Deba).

Gipuzkoako eta, bereziki, Debabarrena eskualdeko ekonomiaren egoera aztertu zuten. Ekonomiaren garapenak industriaren eskutik etorri behar duela azpimarratu zuten, eta horretarako, langile prestatuak izateko, hezkuntza "ezinbestekoa" dela nabarmendu zuten. Jardunaldia amaitzeko, Markel Olanok esan zuen enpresekin harremana eta komunikazioa sendotzea izango dela EAJren erronka nagusia. "Bilduk ez du enpresekin ia harremanik izan, aurreiritzi ideologikoak dituelako. Ez du ekonomia lehenetsi. Ez du plangintzarik egin eta pixkanaka ekonomia sustatzeko aurrekontu-sailak murriztu ditu, kultura politikoa arazoa duela", kargu hartu zion Bilduri. Enpresei laguntzeko urtero 50 milioi euro emateko programaz jardun zuen, eta horren harira esan zuen oso dela garrantzitsua langileek enpresen erabakietan zein kapitalean parte hartzea "lehiakorrek izaten jarraitzeko, proiektuek Gipuzkoan bizirauteko eta erabakitzeko eskubidea ez galtzeko".

Gertaera **Lapurreta, Kaxeta elkartean**

Barixakutik zapaturako gauean gertatu zen lapurreta Arriaga auzoko Kaxeta elkartean. Lapurrak indarrez sartu ziren Kaxetara, ateetako bateko zarraila behartuta. Elkarteko bi telebista eta ordenagailua eraman zituzten, eta baita jatekoa eta edana ere. Elkarte barruko bi ate ere behartu zituzten, eta bulegoan ere sartu ziren, ustez diru bila. Dirurik ez zuten, baina, elkartean. Hala ere, bulegoko paper guztiak astindu eta hankaz gora utzi zuten dena, elkartekideen esanetan.

Ibilgailuetan eraman beharreko agirien ikuskapenak, martxoan

Elgoibarko Udaltzaingoak jakinarazi du martxoan ikuskapenak egingo dituztela, ibilgailuetan eraman beharreko agiriak eramaten diren zaintzeko. Gidabaimena, zirkulatze-ko-baimena, aseguruia eta I.A.T. agiriak eguneratuta dauden ikuskatuko dute udaltzainek.

Morkaikok hilaren 15era atzeratu du Illaunerako irteera

Martxoaren 8rako Illaunera irteera antolatua zuen Morkaikok, baina antolakuntzatik jakinarazi dute hilaren 15era atzeratuko dutela. Izan ere, martxoaren 8koa neguko azken asteburua da, eta egun horretan ohi dutenez, Zuhaitz Eguna ospatuko dute Sargoaten. Zuhaitzak landatzerara joan nahi duten haurrek izena eman behar dute Morkaikokon eta horretarako hiru aukera dituzte: Morkaikoren lokalera agertu, telefonoz deitu (943 740 297) edo emailaz morkaiko@morkaiko.net helbidera idatzita. Bulegoko ordutegia honakoa dute: astelehenetik eguenera 19:00etatik 20:30era.

Elgoibar Ikastola, IKT heldutasunaren eredu

Informazio eta komunikazio eredu maila aurreratua, maila gorena (IKT Heldutasun eredu), aitortu dio Jaurilaritzak Elgoibar Ikastolari. 2014ko uztailan zabaldu zuten deialdia itunpeko ikastetxeentzako eta ikastetxe publikoentzako, aurreko deialdietan ez baitzieten aukerarik eman. Teknologia digitalak ikastolako egunerokoan integratzeko egindako ahalegina saritzen du IKTk. Deialdian 284 ikastetxek parte hartu zuten Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, eta horietatik 11 ikastetxek lortu dute aitortza hau, tartean Elgoibarkoak. Informazio gehiagorako kontsultatu Ikastolak Barren.eus webgunean daukan komunitateko kontua.



Aitor Gomez, Asier Olabarieta eta Unai Villena.

Hiri asko bere baitan

Bilbo, euskara eta sorkuntza ardatz hartuta, *Hiri asko bere baitan* proiektua gauzatu dute Unai Villena, Asier Olabarieta eta Aitor Gomezek. Literatura, musika eta argazkilaritza uztartu dituzte lan honetan, eta irudimenari bide emanez unibertso bisual, literario eta soinuduna sortu dute. Astelehenean zabaldu zuten erakusketa, eta domekara arte egongo da ikusgai. Erakusketari amaiera emateko, kontzertua eskainiko dute, proiektua osatzeko sortu dituzten abestiekkin.

Ainhoa Andonegi



Sormenak batutako hiru lagun dira Unai Villena, Asier Olabarieta eta Aitor Gomez. Bakoitzak bere ogibidea duen arren, zaletasunez kultura sortzaileak dira. Baina zaletasun horrez gain, bada hirurak batzen dituen beste elementu bat: Bilbo. Asier Bilbokoa da, nahiz gaur egun Elgoibarren bizi, eta aldiz, Unai elgoibartarra eta Aitor andoaindarra izanik, Bilbon bizi dira. Bilbok, euskarak eta sorkuntzak batzen ditu hiru gazteak.

Unai Villenak literatura du gustuko, Asierrek, aldiz, musika eta Aitorri argazkilaritza gustatzen

zaio. Zaletasun horrek bultzatuta musika eta literatura uztartzen hasi ziren Unai eta Asier, eta, aldi berean, Unai eta Aitorrek blog bat sortu zuten argazkigintza eta literatura nahastuz. Horretan ari zirela, Bilboko Udalak antolatutako Ideiak Martxan lehiaketaren berri izan zuten, eta horixe izan zen guzti honen abiapuntua. Eskuar-tean zituzten bi proiektuak bat egin, eta hiru diziplinak batuko zituen proiektua aurkeztu zuten lehiaketara. Aurkeztu ez ezik, saria ere eskuratu zuten eta sariari esker eskuratu duten diruarekin jarri dute martxan egitasmoa.

Hiri asko bere baitan jarri diote izena proiektuari, eta Bilbok dituen ezkutuko hiriak erakustea da proiektuaren helburua. "Hiri honek beste hiri asko ditu bere baitan, ezkutuan. Seguruena ez zaizkigu begi-bistakoak irudituko, sumatu ere ez ditugu egingo, baina bertan daude" hitzak erabili zituzten proiektuaren aurkezpenean. Hiriak ezkutuzten dituen hiria da Bilbo.

Bilbo administratiboki zortzi barruti edo auzo-multzotan banatuta dago, eta hiri-barruti horietako bakoitzari obra bat sortu diote, argazkia, hitzak eta musika uztartuz. Hiru alorren batura da obra bakoitza. Honela azladu zioten proiektuaren muina Ideiak Martxan lehiaketako apaimahaikideei: "Argazki bat laua da, baina testua gehituta norberak barrurantz eraikitzen du, eta musikaren laguntzaz hori guztia kanporatu egiten da, musikak espazioa betetzen duelako". Lau obra argazkitik abiatuta egin dituzte, beste hiruk testuan izan dute abiapuntua eta musikatik sortu dute beste pieza bat. "Zeharo ezberdina izan da sortze prozesua obra bakoitzaren kasuan". Iazko apirilean hasi ziren lanean, eta zortzi hilabetean bukatu zuten lana, hain zuzen ere, barruti bakoitzari hilabeteko epea eskaini diote. Bilboko zortzi barruti horietan zehar bidaiatzeko aukera eskaintzen du lan honek, euskaraz. Hiru ardatz horietako bat zen euskara, sormena lantzeaz gain, euskarari ere bultzada eman nahi ziotelako.

Bilbon aurkeztu zuten lehendabizi proiektua, eta Durangoko azokan ere izan ziren. Orain, Elgoibarrera etorri dira, eta hemendik aurrera Euskal Herriko beste hainbat herri bisitatzeko asmoa dute. Argi dute kulgurgintzak ez diela jaten emango, eta irabazi asmorik gabe dihardute lanean. Kultura sortzea dute gustuko, sortzaile afizionatuak direla diote, eta euren lanak zuten dien denbora libre sorkuntzari eskaintzen diote. Abiapuntua izan da lan hau, baina jarraipena izango du, hiru gazte hauen irudimenak ez duelako mugarik.

"Mundu mailako" estreinaldia domekan

Erakusketa bera ulertzeko hiru diziplinak bat eginda ikusi behar da. Entzun, irakurri eta ikusi egin behar da, alegia. Zortzi obrak osatzen dute erakusketa, Bilboko barruti bakoitzeko bat, eta obra bakoitzak bere irudia, testua eta abestia ditu. 35 bat minutu behar dira erakusketa ikusteko. Bilbo hobeto ezagutzeko aukera eman die lan honek, eta euren arteko harremana sendotzeko ere balio izan duela adierazi dute. Gai unibertsalak landu dituzte, eta gai horiek Bilboko barrutietan lotu dituzte. Bilbo dauka oinarrian proiektuak, baina sortzaileek esan dutenez, Bilbotik kanpora ere inolako arazorik gabe ulertzen da obra.

Erakusketaz gain, argazkiak eta testuak liburuxka batean jaso dituzte, eta datorren domekan zuzeneko emanaldia egingo dute proiektua osatzeko sortu dituzten abestiek. Asier arduratu da musikaz. Berak sortu ditu doinuak, eta gitarra berak grabatu du. Hala ere, beste musikari batzuen kolaborazioa izan du estudioan, eta domekan Elgoibarren izango dira. Andoni Alonso, Aitzol Mujika eta Kepa Errazti arituko dira Asierrekin zuzenean, eta sorpresak ere iragarri dituzte. Estreinaldi emanaldia izango da, "mundu mailako estreinaldia". 19:00etan izango da musikaldia Kultur Etxeko sotoan, eta sarrera hiru euroan jarri dute.

www.hiriaskoberebaitan.com webgunean ikusi, entzun eta irakur daitezke zortzi obrak.

Zortzi barruti, zortzi obra

Zortzi obrak osatzen dute proiektua, eta orrialde honetan jaso ditugu horietako hiru. Argazki bakoitzaren atzean dagoen gaia azaldu dugu, eta QR kodearen bidez abestia entzuteko aukera dago. Erakusketan ikusi, entzun eta irakur daitezke zortzi obrak.



'EMAKUME ITSUSIA' (Basurtu-Zorrotza)

Bilbon bada monumentu gisako garabia-luma erraldoi bat, antzina Euskalduna ontzioletan altzairua altxatzen zuena. Garabiari Karola izena ipini zioten egunero ondotik pasatzen zen emakumearen omenez. Gerturatzen ari zela ikustean, kabinan zegoenari abisua pasatzen zioten beheko beharginek, eta hark momentuan egiten ari zena eten eta metalezko erraldoia birarazten zuen, makinaren mugimenduarekin emakumearenari jarraituz. Bilbon bazen Karola izeneko emakume bat. Ez zuen atsegin ispiluetan bere burua ikustea. Horrela hasten da testua: *"Inoiz ezagutu dudan emakumerik ederrenetarikoa zen dudarik gabe, baina berak zatarra zela pentsatzen zuen..."*.



'EGONEAN' (Begoña)



"Gaur ez daukat burua bere lekuan. Pentsamenduek irrist egiten didate gogotik; hitzek, ihes...". Maitasun arazoak ditu oinarrian argazki honek. Maite duen, baina maite duen horrek bera maite ez duen pertsona baten hitzak dira. Ez dago ondo, sufritzen ari da eta min egiten dion hori hilik ikusi nahi du. Argazkia Begoñako hilerrian aterata dago.



'EURI JASAK' (Errekalde auzoa)

Populazioaren zahartzea omen da euskal gizarteari gertatzen ari zaion fenomenoetako bat, hirietako auzo jakin batzuetan eragin nabarmena duena. Hori gogoan, zahartzaro eta bakardadeari buruzko hausnarketa eragiten saiatu dira obra honekin. Zentroko leku jendetsuen azkartasun eta bizitasunarekin kontrastean, auzo periferikoetan oso erritmo bestelakoa du bizitzak: lasaiagoa, leunagoa, motelagoa. Errekalde auzoan atera zuten argazkia. Horrela hasten da testua: *"Agurea baldar-baldar altxatu da ohetik, barruko elastiko eta gantzontzilotan. Ez du argirik piztu eta lurrean zeuden txapinekin estropezu egin du, eta kasik erori..."*



Erretratu zaharra



1975

Inauteriak bukatu dira, eta gehienek armairuan gordeta izango dituzue dagoeneko mozorroak, baina egun horietako oroimenak bizi-bizi ditugu oraindik, eta aste honetan ere inauterietako argazki bat ekarri digute erredakziora. 1975. urte inguruko argazki hau Lidia Iriartek utzi digu. Lagunartean mozorrotzen ziren, eta urte askoan jarraitu zuten mozorrotzen.

Zutik: Itziar Beristain, Maria Jesus Arostegi, Pilar Retolaza, Lidia Iriarte, Mari Carmen Zubizarreta, Pilar Fernandez, Begoña Muguruza. **Behean:** Marina Colina, Conchi Barrutia, Amparo Kilimon eta Izaskun Uriguen.

ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENen argitaratzeko
erretratu zaharrak
baldin badituzu, eskertuko genizuke
gure erredakziora ekartzea edo
barren@elgoibarkoizarra.eus
helbidera bidaltzea
Nafarroa Plaza 2, behea.
943 744 112 (Ainhoa)

B

BARREN



luz, San Silbestre egunean, lasterketa hasi aurretik ateratako argazkia da. Argazkiko talde handi batek jarraitzen du korrika, eta berriak ere

TALDEAREN INDARRA

Urte askoan korrika ibili gabeak dira gehienak eta sekula ibili gabeak ere badira tartean. Abenduaren azken egunean, baina, Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatu zuen San Silbestre lasterketarako jantzi zituzten zapatilak, eta ordutik, “gozatzen” ari dira. Gutxienez astean birritan elkartzen dira taldean korrika egiteko, eta haietako 24 igandean Donostian egingo den Lilatoirako izena emanda daude. “Ondo sentitzeko” egiten dute korrika eta herriko emakume guztiak animatu nahi dituzte kirola egitera, gorputza zailtzeko eta burua *oxigenatzeko* ez ezik, sozializaziorako ere lagungarri dela uste dutelako.

Ainara Argoitia

A benduko San Silbestre lasterketaren harira hasi zen dena. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak lasterketa herrikoia antolatu zuen estreinakoz iaz eta huraxe izan zuten denek pizgarri. “Txalo handi bana, beraz, antolatzaileei, niretzat eta taldeko beste emakume askorentzat bultzada handia izan zelako hura. Bestela nekez irtengo ginen korrika, eta lasterketa hura egiteko aitzakiarekin, jantzi genituen zapatilak eta begira orain zein gustura irteten garen!”, esan du Leonor Barrerases (Mendaro, 1957). Guztira, 150 lagunek parte hartu zuten estreinako San Silbestre hartan.

Azaroaren erdi aldia zen, eta apropos San Silbestre eguneko lasterketa prestatzeko, astean birritan elkartzen hasi ziren, martitzen eta eguen iluntzetan. Bost lagun batu ziren lehenengo egunean, baina dozenatik gora emakume batzera ere iritsi dira gerora egin dituz-

ten entrenamendu-saioretan. Whatsapp-ean taldea ere sortu zuten, eta gaur, hogeita zortzi lagun dira taldean.

Montse Soto (Mendaro, 1975) da whatsapp taldearen kudeatzailea. Sekula korrika egin gabea zela aitortu du Sotok, baina parkean lagunak San Silbestrerako xaxaka hasi zitzaizkionean, animatu zela bera ere, “herriko kontua zelako eta taldean joatea zelako”. Lotsak lotzen zuela aitortu du. “Sekulako inbidia ematen zidaten korrika ibili zaleak zirenek, baina izugarriko lotsa ematen zidan bakar-bakarrik korrika egitera irteteak”. Taldearen babesean eman zuen pausoa, beste askok bezala. Akulu funtzioa ere betetzen du taldeak, Sotoren esanetan. “Nik badakit bakarrik irtengo banintz azkar asko utziko niola korrika egiteari. Ezinean noala sentituz gero, buelta erdi eman eta laster asko etxeratuko nintzatekeen, baina taldean joateak indarra ematen du, beste la egingo ez zenituzkeenak egiteko indarra”. Lotsa hitza sarri aipatu



batu zaizkie.

den kontua da korrika irteten diren nesken artean, eta Barrerasesk ere onartu du horixe zuela berak galgarik handiena. Betidanik gustatu izan zaio kirola egitea berari, eta seme-alabak ume zirenean tarteka ibili izan zen korrika, baina 30 bat urte joan dira ordutik, eta kezkatzen zuen "jendearen jardunak". "Ikusi hor Leo. Nora doa hori korrika orain adin horrekin?" esango zuten denek. Jendearen jardun horrek atzera botatzen ninduen, baina talde honi esker lortu dut hori gainditzea. Orain berdin-berdin zait zer esaten duten, ni gustura ari naiz-eta!", bota du. 57 urte ditu, eta bera da taldeko beteranena. Sekula ez dio horri erreparatu, baina. Kirola egin zalea da bera, eta azken boladan horren modan jarri den zumba ere egiten du astean birritan. Sasoiko dago, eta ez du ezinik bera baino gazteago direnei jarraitzeko, bestera badio ere berak: "Azkena joateak ere ez dit axola. Ni oso gustura joaten naiz, baina gelditu behar badut ere, ez dut gelditzeko arazorik. Zerbait egitea da kontua".

Erronka berriak

San Silbestrea elkarrekin egin zuten hirurek, eta oroitzapen oso ona dutela azpimarratu dute denek. "Oso, oso polita izan zen. Jai-giro polita sortu zen herrian. Han inor ez zen gutxiago", nabarmendu du Gorostizak. Ohituta zeuden *txiri-txiri* bost kilometroko ibilbidea euren errit-mora egiten, eta konfiantza bazuten gai izango zirela egiteko, baina airtortu dute ezberdina dela jende askorekin korrika egitea, norberaren erritmotik irteteko arriskua izaten delako sarri. Gertatu zitzaizen emakumeen taldeko batzuei ere, eta Gorostizak berak ere onartu du, behar baino azkarrago hasi zela bera ere, baina besteetan baino gehiago

kostatu arren, bukatu zutela eta izugarri bete zituela horrek. Horixe zuten helburua ere: bukatzea, eta gozatzea. "Plaza jendez beteta eta gu han korrika. Oso polita izan zen, hunkigarria", esan du Barrerasesk. "Helburua bete genuen, eta ni neu oso-osoa gustura etxeratu nintzen. Ederra da gai zarela ikustea!", Sotok.

Eta jabetu ziren helburu bat jartzeak, edozein dela ere helburua, zenbat laguntzen duen kirolerako. "Entrenatzera irteten zara eta esaten diozu zeure buruari: 'atzo zazpi kilometro egin nituen, ia gaur beste bueltatxo bat gehiago egiteko gai garen!', zehaztu du Gorostizak. San Silbestrea bukatu bezain laster jarri zuten hurrengo erronka: Lilatoia, emakumeen lasterketa herrikoa. Bost kilometroko lasterketa da, eta domekan jokatuko da Donostian, baina jokatzerarik "gozatzeratik" doaz gure protagonistak, "taldean gozatzeratik". Abenduko alde batera lagata, lasterketa batean parte hartzen duen lehenengo aldia izango dute Sotok eta Gorostizak eta ezin dute urduritasuna ezkutatu. Ezta ilusioa ere. Taldean joango dira 24 emakume, eta hartua dute bazkaritarako lekua ere gerorako. "Oso ondo pasatuko dugu", dio zalantza izpirik gabe Gorostizak. Asteburuan Plaza auzoko Aingeru-Guardako jaiak izanik, eta bertan sortua izanik, Barreras ez da igandean Donostian izango, eta badu pena halako bat. "Inbidia handia ematen didate, baina halaxe tokatu da. Hurrengora banoa neu ere, baina". Eta izango du horretarako aukerarik, hasiak baitira neskak erronka berriei begira. "Donostiako hiru hondartzak hamar kilometro lasterketa izan daiteke hurrengoa. Hala hitz egin dugu", bota du Sotok.

Korrika egiteak "engantxatu" egin dituela esan dute hirurek.

Kirola egitea baino gehiago dela irizten diote, gainera. "Sozializatorako ere balio du", dio Gorostizak. "Eguneroko kontuez ahaztu eta norberarentzat tarte bat hartzea da. Oso ondo dator buruarentzat", gehitu du Sotok. Garai batean oinez egitea irteten ziren gauez, eta hura ere ederra zela nabarmendu dute, baina korrika egitea "zerbait gehiago" dela diote, denbora tarte berean gehiago egin duten ustearekin etxeratzen direlako. Lehenengo egunetik hona "arinago" sentitzen dira, "hobeto".

"Askotan esaten da, eta egi handia da, gainera. Kirola egiteak, mugitzeak berak, bizi-indarra ematen du. 22 egun daramatzat amarekin gau eta egun ospitalean eta sinistuta nago azkenaldiko entrenamenduek zerikusi handia izan dutela nagoen bezain ondo egoteko. Nola eraman daiteke bestela errutina hau? Kirola egitean gogortu du nire burua, eta eramanerrazago egiten dit ospitalean egon beharra bera ere", dio Barrerasesk. Horregatik korrika egitea animatu nahi ditu denak, bereziki bere edade bueltako emakumeak. "Ez dezatela lotsarik izan!. Irten daitezela kalera kirola egitera". Gizonen aldean, emakumeak kirolerako erreparatu gehiegi dituztela uste du, "lotsa gehiegi, behar ez denerako". Taldea zabalik dagoela nabarmendu dute denek, eta dei egin diete herriko emakumei martitzenetan eta egunenetan entrenatzera batzeko [Uztargi kanpoan elkartzen dira, 21:00etan, normalean].

"Kirola egiteak, mugitzeak berak bizi-indarra ematen du"

Aingeru Guardako jaiak hasiko dituzte gaur Mendaroko Plaza auzoan

Martxoaren 1a da Aingeru Guardakoaren eguna, Plaza auzoko zaindariaren omenezko eguna, eta egun hori baliatuta jai-giroan murgilduko dira gaur Plazan. Arbola-enborra tentetu eta kanpaiak astintzearekin batera hasiko dituzte gaur ospakizunak, baina biharkoa eta etzikoia izango dira egun handiak. Bihar, Arnoateko Igoera jokatu da, bosgarren urtez jarraian. 11:30ean irtengo dira korrikalariak Plaza auzotik, autopista azpiko zubitik, eta lau kilometro pasatxoko bidea egin beharko dute aldatz gora Arnoate baserri atariraino. Izenematea debalde izango da, eta lasterketa hasi aurretik egin beharko dira han bertan. Lasterketa ostean hamaiketako egongo dela aurreratu dute antolatzaileek. Igan-dean, Plaza auzoko egun handian, ermita inguruan batuko da jendea. Meza ostean, trikitalariak eta bertsolariak ariko dira, nor berean, eta herri-kirol saioa ere izango da. Ondorenerako, bertso-bazkaria dago iragarrita. Aizpe gastronomia elkartearen izango da hori, 14:30etik aurrera, eta Iker Zubeldia eta Aitor Sarriegi izango dira gonbidatutako bertsolariak.

Sasikopotzu ohitura zaharra berrituko dute bihar Mendaron, Motxaila Eguneko ospakizunetan

Motxaila Eguna ospatuko dute bihar Mendaron, garai bateko sasikopotzu usadio zaharrari lotutako eguna. Haitzbeltz kobazuloan hasiko dute eguna, 11:30ean, baina aurrez, 9:30ean, Gaztetxe aurrean batuko dira hara arteko bidea elkarrekin egiteko. Behin goian direla, dantza, musika eta bertsoak uztartuko dituen ikuskizuna izango dute. Ondoren, 15:00etan, Gaztetxera jaitsiko dira berriro, elkarrekin bazkaltzeko. Aurrez izena emandakoentzako bazkaria izango da. Bazkalostea, Inozentzio clownak, bertsolariak eta Eibartik etorriko diren musikariak girotuko dute. Arratsalderako, berriz, trikiti-poteoa iragarri dute. Alaia Martin eta Jokin Uranga izango dira jaira gonbidatutako bertsolariak, baina seguru batuko zaizkiela bat-bateko bertsolari gehiago ere bidean. Gauean, berriz, kontzertuak izango dira Gaztetxean. Skaleak taldeak hasiko du gaua eta erromeria izango dute ondoren.

'Muchas noches, buenas gracias' antzezlanaren eskainiko dute bihar zortzi, martxoaren 7an

Muchas noches, buenas gracias antzezlanaren eskainiko dute, martxoaren 7an, zapatua, Mendaron. Euskal Telebistaren bigarren kateko *Vaya Semanita* saioko aktoreak dira antzezlaneko protagonistak: Andoni Agirregomezkorta eta Lander Otaola, eta sari-keta ekitaldi baten gaineko satira bat aurkeztuko dute. Komedia da azken finean obra, barre eginarazteko obra.

San Agustin kulturgunean izango da emanaldia, 22:00etatik aurrera, eta sarrerak 7 euroan jarriko dituzte salgai, Morroskilon.



Martxoaren 6an 'Jostunak' dokumentala eskainiko du Gure Esku Dagok Mendaron

Jostunak. Herritarren borondateak jositako historia bat dokumentala eskainiko du Gure Esku Dagoren herri-batzordeak martxoaren 6an. San Agustin kulturgunean izango da emanaldia, 22:00etatik aurrera. Ordu eta erdiko dokumentala da, Eriz Zapirainek eta Ion Telleriak landutako gidoiaren bueltan egindakoa, eta Gure Esku Dago dinamikan parte hartu duten herritar anonimoei ematen die protagonismoa. Era berean, baina, erabakitze eskubidearen inguruko korapiloak ere azaltzen dituzte *Jostunak* dokumentalean. Jende ezagun ugari parte hartzen du dokumentalean.


Bestalde, ekainaren 21ean Donostian egingo den Ehuntze egun handirako txartelak eta oihalak banatzeari ekingo diote aurki batzordekideek Mendaron. Garai bateko *Bai euskarari!* kanpainaren baitan egin ziren jaialdien antzekoa izan nahi du ekainekoak. Aurrez, baina, apirilaren 25ean, joste eguna egingo da Mendaron ere. Herritarren borondate eta nahiak josi eta horien bueltan batzeko eguna izango da. Horretarako, tutore bila hasi dira taldekoak, euren ingurua ekimen honetara batzeko prest dagoen jendearen bila, eta norbait tutore izateko prest balego, eurekin harremanetan jartzeko eskatu dute.

Urtarrilean...

JAIOTAKOAK



Josu Arrizabalaga Solano
Urtarrilak 27
Haritz eta Mari Jose



Nere Konde Agirrebeña
Urtarrilak 2
Egoitz eta Leire



Lucia Bergua Oteiza
Urtarrilak 7
Aitor eta Lorea



Noa Del Sol Gurrutxaga
Urtarrilak 13
Miguel eta Ruth



Ainara Michelle Uturnco Morales
Urtarrilak 13
German eta Severina



Ander Zubiaurre Bilbao
Urtarrilak 8
Ion eta Maialen

Isabela Manzano Gomes
Urtarrilak 17
Raul eta Andrea

Xinyao Sofia Wu
Urtarrilak 26
Yonghua eta Mei

Sulaiman Aghbalou
Urtarrilak 25
Rachid eta Fatima


HILDAKOAK

Katalina Mugertza Leiaristi • 98 urte • Urtarrilak 2
Blanki Astarloa Zubillaga • 85 urte • Urtarrilak 9
Jesus Mari Zabala Mendizabal • 71 urte • Urtarrilak 9
Joseba Zulaika Osa • 79 urte • Urtarrilak 11
Lola Gil Zengotita • 97 urte • Urtarrilak 11
Blanki Garitagoitia Gurrutxaga • 63 urte • Urtarrilak 11
Felisa Lariz Garate • 93 urte • Urtarrilak 18
María Luisa Rementeria Beristain • 89 urte • Urtarrilak 23
Luis Mari Agirregomezkorta Arostegi • 62 urte • Urtarrilak 23
Jose Maria Salegi Arakistain • 91 urte • Urtarrilak 28
Hermenegilda Zubiaurre San Martin • 91 urte • Urtarrilak 31

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27

(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56 / (Sakelekoa) 635 756 295

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira

943 744 112 telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

Elgoibarko Izarrako bazkideek 3,50€ eta gainerakoek 4,50€.

Erakusketa, antzerkia, musika, bazkaria, bisita gidatuak eta elkarretaratzea antolatu dituzte, martxoaren 8aren harira

‘Emakumeak txuri urdinez’ izeneko erakusketa zabalduko dute gaur Kultur Etxean

Egitarau oparoa antolatu dute Elgoibarren Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira. Hasteko, ekainaren 3an Maite Franco ipuin-kontalaria etorriko da Gotzon Garate Udal Liburutegira, *Filomena musugorri errege eta beste ipuin batzuk* saioa eskaintzera. Bi saio emango ditu: 17:00etan, HH5eko haurrentzat, eta 17:30ean, LH1, LH2 eta LH3ko haurrentzat. Martxoaren 6an, berriz, Hika antzerki konpainiak *Palabras* antzezlan eskainiko du Herriko Antzokian (20:30). Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak antolatu du. Gaztelaniaz izango dela.

Martxoaren 7rako, berriz, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Batetik, goizean, 11:00etatik 12:30era bitartean, hala nahi duen orok bisita kulturala egingo du herrian barrena, Pello Arrieta historialariarekin. Ondoren, 13:00etatik 14:00ak bitartean, soinu-kontzertua emango du Sustrai akordeoi taldeak Kultur Etxeko sotoan, eta ordu erdi beranduago, 14:30ean, aurrez izena emandako emakumeek elkarrekin bazkalduko dute Sigma jatetxean – Interesatuek Pitxindun eman behar dute bazkalarako izena–, eta bazkalostean, antzerkia, olerkiak eta dantzak izango direla iragarri du Haizea emakume taldeak. Martxoaren 8rako, ohi legez, elkarretaratzera deitu du Elgoibarko Emakumeen Kontseiluak. Kalegoen plazan izango da elkarretaratzea, 13:00etan, eta Beinke bertso-eskolako ikasleek bertsoz girotuko dute.



‘Palabras’ antzezlan emango dute gaur zortzi Herriko Antzokian

Erakusketa

Bestalde, Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak eta Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak Emakumeak txuri urdinez izenburuko erakusketa antolatu dute, Realarekin elkarlanean. Gaur bertan zabalduko dute, 19:00etan, eta martxoaren 22ra arte egongo da zabalik. Iñaki Mendoza Realeko dokumentalistak eta Txaro Barinaga-Rementeriak frankismo garaiko jokalariek parte hartuko dute gaurko aurkezpenean.

Kultur Etxeko erakusketa gelan jarriko dute erakusketa eta bi ordutegi izango dira: astebarruan: 18:30etik 20:30era, eta jaiegunetan: 12:00etatik 14:00etara.

Emakumeak, Realaren historian



Realak 100 urte baino gehiagoko historia du, eta urte horietan guztietan uste baino garrantzitsuagoak izan dira

emakumeak Klubean. Saskibaloia, eskia, pala... gutxi gogoratuko dituzte, beharbada, Realak izandako sail ho-

riek, baina izan zituen garai batean, eta beste batzuk oraindik bizirik diraute, futbolarik eta belar hockeyak, esaterako. Kirola egitea bera ere debekatua zuten garaia ezagutu zuten emakumezkoek. Frankismoaren eraginez, 1962. urtera arte, emakumeek galazita izan zuten atletismoan aritzea, baina debekualdia amaitu eta berehala sortu zuen Realak taldea, 1963an. Realak izan zen, hain zuzen ere, atletismo taldean emakumeak onartu zituen Gipuzkoako lehen klubetakoa. Baina joko-eremuan ez ezik, bulegoan eta ardura postuetan ere zeresan handia izan dute emakumeek Realean ere, eta hori guztia islatu nahi izan dute erakusketa honetan.

‘Ciutat Morta’ dokumentala emango dute Elgoibarren, martxoaren 5ean

Ongarrik eta Arnaldo askatu plataformak antolatu dute

Ongarri zineklubak eta Arnaldo askatu, politika askatu herri plataformak *Ciutat Morta* dokumentalaren emanaldia antolatu dute eguenerako, martxoaren 5erako (Herriko Antzokian, 20:30). Bi orduko dokumentala da, eta Xavier Artigas soziologo eta artistak (Bartzelona, 1980) eta Xapo Ortega arkitekto eta diseinatzaile grafikoak (Bartzelona, 1972) zuzendu zuten, helburu batekin: bost gazte errugabe kartzelara eramane zituen kasu baten berri emateko eta bere buruaz beste egin zuen gazte haietako bat [Patricia Heras] omentzeko.

2006. urtean Bartzelonan izandako gertaera latz batzuen berri ematen dute dokumentalean. Urte hartako otsailaren 4an polizia karga bat gertatu zen etxe okupatu



baten inguruan. Kaskorik gabe zihoazen polizia bati landare ontzi bat erori zitzaion, eta koman gelditu zen. Bost gazte atxilotu zituzten orduan; atxilotu eta torturatu, eta polizia egoeraren errudun bilakatu. Gazte haietako bat zen Patricia Heras, kartzelan bi urte egin eta gero, kalera irten bezain laster bere burua hil zuen neska.

Big Boy taldearen kontzertua antolatu du Sinuosek gaur zortzirako, martxoaren 6rako

Sinuosek antolatuta, Big Boy taldeak kontzertua eskainiko du gaur zortzi Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan [http://bigboytaldea.blogspot.com.es/]. Big boy taldea zumaiaiko sei lagunek osatzen dute. 2012an sortu zuten taldea, eta izen bereko diskoa dute. Diskoarekin batera taldearen sorkuntza eta ibilbide asmaturik azaltzen duen dokumentalaren dvd-a ere kaleratu zuten. Haize instrumentuak, kitarra, baxua, organua eta bateria erabiltzen dituzte musika sortzeko. Zirkoko giroa, Europa ekialdeko txaranga-soinua eta Tom Waitzen nahasketa antzekoa da egiten dutena. 23:00etan hasiko da kontzertua eta sarrerak hiru eurotan jarriko dituzte salgai, ohi legez.



Gaur eta martxoko ostiraletan Kale Kantariak ez dute entsegurik izango

Hilabeteko azken zapatuko feria izango da bihar Elgoibarren, eta ohi legez, kantura irtengo dira Kale Kantariak. Horren harira jakinarazi dute, baina, gaur ez dutela entsegurik egingo eta martxoko ostiraletaoak ere bertan behera laga ditzuzte. Hala ere, kanturako gogoia duten guztiei dei egin diete bihar taldera batzeko. Era berean, jakinarazi dute maiatzaren 9rako kantu-jira antolatu dutela Errenterian eta hara joateko interesa dutenek martxoaren 6a aurretik eman behar dutela izena honako telefonozenbaki honetan: 943 742 145.

Atxutxiamaiak egonaldia antolatu du Zarautzen apirilaren 7tik 10erako

Elgoibarko Izarraren aisialdi taldeak, Atxutxiamaiak, Lehen Hezikuntzako haurrentzako egonaldi bat antolatu du Zarautzen apirilaren 7tik 10erako. LH3-6 bitarteko ikasleentzako egonaldia da, eta gaur amaituko da izena emateko epea. Plazak mugatuak dira, eta egonaldiak 91 euro balio ditu, baina Elgoibarko Izarrako bazkide direnentzat, 82 euroan laga dute. Izena emateko bi aukera jarri dituzte: Elgoibarko Izarrak Ubitarten daukan bulegotik pasatu edo webgunetik bertatik: www.elgoibarkoizarra.eus. Harremanetarako edo informazio gehiagorako: 943 741 626 (Mikel edo Naiara) / aisialdia@elgoibarkoizarra.eus.

Zine-foruma antolatu du Haizeak hilaren 13rako

Pan y rosas filma eskainiko du Haizea emakume taldeak martxoaren 13an Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Ohi legez, Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. 21:30ean hasiko da emanaldia.

Carolo Bandres memoriale irabazita Euskadiko txapelketa eskuratu du Larizek

Domeka honetan Zuzenien kilometro bertikala jokatu du

Carolo Bandres memoriale jokatu zuten joan zen asteburuan Isaba eta Belagua inguruetan, eta bai zapatuan eta baita domekan ere, Iñigo Lariz eskiatzaile elgoibartarrak irabazi zuen. Zapatuan krono-igoera izan zen proba: Par-taideak Isabako plazatik abiatu ziren korrika eskiak bizkarrean hartuta, eta 600 metroko desnibel positiboa gainditu behar izan zuten. Eguraldi txarra egin zuen, eta proba gogorra izan zela adierazi du Larizek. Domekan, aldiz, banakako lasterketa jokatu zuten Belagua inguruko basoetan barrena. Elurte handia bota zuenez, antolatzaileek basoan jokatzea erabaki zuten, elur-jausietarako arrisku gutxiago egoten delako. Larizek esan du proba "benetan polita" izan zela. Asteburuko bi probak irabazita, Carolo Bandres probako txapeldua izan zen, eta horrez gain, Euskadiko txapelketa ere eskuratu du bai krono-igoeran eta baita banakoan ere.



Domeka honetan eskiak albo batera utziko ditu Azpeitiko Zuzenien Kilometro Bertikalean parte hartzeko, baina hamabost egun barru berriz ere elurretara joango da, Mikel Navarro urretxuarrarekin batera Altitoy mendi eski proban parte hartzeko. Navarrok Carolo Bandres memoriale irabazi du beteranoetan, beraz, bikote gogorra osatuko dute Altitoyrako.

Elgoibarko igeriketa taldekoak Eibarren lehiatu dira



Elgoibarko igeriketa taldeko gaztetxoek Eibarko igeriketa proban hartu zuten parte joan zen zapatuan, eta taldeko arduradunek esandakoaren arabera, emaitza onak lortu zituzten. June Zubiaurre Ortueta-ren denbora nabarmendu dute: 53,06 denborarekin, bigarren egin zuten 50 metroko bular estiloan.



Martin Hernandez, Euskadiko txapelkun pista estalian

Pista estaliko Euskadiko txapelketa jokatu zuten joan zen asteburuan Anoetako belodromoan, eta Mintxeta taldeko Martin Hernandezek irabazi zuen proba infantiletan, 2:46.74 denborarekin. Marka horri esker, Espainiako txapelketan parte hartzeko aukera izango du. Horrez gain, Ordizian jokatu zen kross txapelketa ere irabazi zuen Hernandezek.

Era berean, Johan Rodriguez izan zen onena pisu jaurtiketan, 12,59 metroko jaurtiketarekin, eta Eider Iglesiasek bigarren egin zuen luzeera jautzian, 4,65 metroko jauziarekin. 60 metroko lasterketan bosgarren egin zuen, eta altura jautzian laugarrena izan zen. Markel Zabala, bestalde, bederatzigarrena izan zen bere mailan 2:59.79 denborarekin, txapela jantzi zuen bere seriean.

Alberto Fernandez eskalatzaile elgoibartarra saritu dute

Euskal Mendi Federazioak 2014ko kirolari onenak saritu zituen joan zen asteburuan, eta Alberto Fernandez eskalatzaile elgoibartarra ere saritu zuten, beste hainbat kirolarien artean. Fernandezek jarduera alpinistiko onenaren saria jaso zuen.

Hiru egunetan hiru sari jaso ditu Maite Maiorak

Euskal Mendi Federazioak eman dio saria

Asteburu biribila izan zuen Maite Maiora mendarorarak. Ostiralean, 2014ko mendiko lasterkari onena izendatu zuen Euskal Mendi Federazioak, Getxon, eta zapatuan, EuskalTrail saria jaso zuen Ibarra ospatu zuten Euskal Trail egunean.

Guztira, hiru lagun eta lasterketa bat nabarmendu zituzten (Mendiko Lasterketen Sailean) Euskal Trail galan, eta Maitek jaso zuen iazko mendiko lasterkari emakumezkoen onenari zegokiona. Aritz Egea urretxuarra nabarmendu zuten gizonezkoetan, eta Jokin Lizeaga urnietarrak aipamen berezia jaso zuen. Lasterketarik onena, berriz, Zegama-Aizkorri mendi-lasterketa izendatu zuten beste urtebetez, eta Ainhoa Txurruka zuzendarik jaso zuen saria, antolatzaile taldearen izenean. Ez



zen zapatuan bukatu, baina, Maite Maioraren asteburuko loria.

Domekan, Lezo-Jaizkibel mendi-lasterketa irabazi zuen. 14 kilometroko lasterketa izan zen, eta 1:17:33ko denboran osatu zuen Maiorak. Gizonezkoetan, Iker Oliveri Ruiz de Muniain hondarribiarra nagusitu zen, 1:06:39ko denborarekin.

Euskadiko idi-proba txapelketako finala jokatuko dute bihar Sigmako probalekuan



BBK Sarian puntuaziorik onena lortu duten hiru idi-parek jokatuko dute bihar Euskadiko txapelketako finala, Sigmako probalekuan. Bakioko Txomin Renteria-
ren idi-parea, Lemoizko Andrakas sagardotegikoa eta Orioko Iñaki Olidenena ari-
tuko dira lehian. 2.200 kiloko harriarekin lan egin beharko dute, eta ordu erdian
plaza gehien egiten dituenak irabaziko du. Irabazleak 1.400 euro, mantak eta ga-
raikurra jasoko ditu; bigarrenak, 1.200 euro, eta hirugarrenak, 1.000 euro. Ikuski-
zuna 22:00etan hasiko da, eta sarrerak 20 euro balioko ditu.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi **3** – Real Union B **0** (Pref.)
Elgoibar **2** – Intxurre **1** (1. erreg.)
Ordizia **5** – Elgoibar **0** (Jub.)
Urola **2** – Elgoibar **0** (Kad. A)
Elgoibar **2** – Arrasate **1** (Kad. B)
Arrasate **2** – Elgoibar **23** (Lehen inf.)
Behobia **1** – Elgoibar **8** (Inf. Txiki)
Aretxabaleta **3** – Elgoibar **4** (Inf. Txiki)

ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa

Deba **10** – Lagunak **22** (2. mailako jub.)
Pala
Lagunak **25** – Hernani **23** (1. mailako nag.)
Lagunak **15** – Loiolatarra **25** (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Xota **3** – Concepto Egile **1** (2B)

ESKUBALOIA

Tolosa **28** – Alkorta Elg. **24** (Sen. mut.)
Donibane **27** – Gabaz Elg. **25** (Sen. mut.)
Aloña **20** – Astigarraga Elg. **16** (Jub. neska.)
Beristain Elg. **22** – Ormaiztegi **23** (Jub. mut.)
Tecnifuelle Elg. **29** – Zuazo **19** (Kad. neska.)
Zarautz **31** – Bankoa Elg. **26** (Kad. mut.)
Deca Elg. **20** – Leizaran **25** (Kad. mut.)
Bergara **30** – Deca Elg. **30** (Kad. mut.)
Ordizia **11** – San Roke Elg. **30** (Inf. neska.)
Ikus Elg. **21** – Zumaia **14** (Inf. neska.)
Anoeta **13** – Cometel Elg. **19** (Inf. neska.)
Txarriduna Elg. **31** – Bergara **1a** (Inf. neska.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 28

11:30 Elgoibar – Ekintza (Inf. Txiki)
16:00 Elgoibar – Real Sociedad (Ohorezko kad.)
18:00 Elgoibar – Amaiak Bat (Ohorezko jub.)

Domeka, 1

12:00 Elgoibar – Zumaiako (Inf.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 28

9:45 Cometel Elg. – Aiala C (Inf. neska.)
11:00 Bankoa Elg. – Basauri (Kad. mut.)
12:30 Gabaz Elg. – Aloña Mendi (Sen. mut.)
16:30 Lauko Elg. – Lagunak (Sen. neska.)
18:15 Alkorta Elg. – Hondarribia (Sen. mut.)

Domeka, 1

9:30 Murgil Elg. – Pulpo (Inf. mut.)
10:45 San Roke Elg. – Anoeta (Inf. neska.)

PILOTA (Ikastolan)

Barixakua, 27

20:30 Lagunak – Antigua (2. mailako jub.)

Martitzena, 3

Deba Arroko txapelketa

19:30 Lagunak – Arrasate (Jub.)

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo sukaldari laguntzaile modura lan egiteko. ☎ **665 424 510**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. ☎ **632 143 239 / 628 738 472**
- Emakume serio eta arduratsua eskaintzen da lanerako. Interna edo orduka. Asteburuak ere. ☎ **631 124 942**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **616 457 254**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko. ☎ **638 338 816**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ospitalean ere bai. Gauzez edo orduka lan egiteko prest. Esperientzia handia. ☎ **602 805 363**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka. Gauzez lan egiteko prest. Esperientzia handia daukat. ☎ **631 506 763**
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Interna edo orduka. ☎ **631 834 241**
- Emakumea eta gizona pertsona helduak zaintzeko prest. Egunez eta gauzez. ☎ **630 410 294**

- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez lan egiteko. Etxeko lanak egiteko. ☎ **639 054 041**
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ **608 523 426**
- Neska arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo haurrak zaintzeko. Interna lan egiteko prest. ☎ **640 226 895**
- 50 urteko emakumea lan bila. Euskal Herrikoa. sukaldari laguntzaile, zerbitzari, garbitzaile, zaintzaile.... Esperientzia fruta-saltzaile bezala jende aurrean. ☎ **667 015 984 / 603 644 117**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko interna moduan. ☎ **636 976 515**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Erreferentziak ditut. ☎ **680 808 125**
- Emakumea pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest, arratsaldez edota gauzez. ☎ **620 258 708**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **631 651 098**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **631 363 056**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **631 418 130**

- Gizona pertsona helduak zaintzeko edota sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest. ☎ **631 235 925**
- Emakumea etxeko garbiketarako egiteko prest. ☎ **639 423 493**
- Emakumea etxeko lanak egin edota pertsona helduak zaintzeko prest, orduka edo jardun osora. ☎ **943 901 752 / 638 338 816**
- Gizona pertsona helduak zaintzeko edota eraiuntzan lan egiteko prest. ☎ **632 584 082**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo umeak zaintzeko. Interna ere egingo luke lan. ☎ **631 681 516**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **633 236 528**

ESKAITZA

- Sukaldari laguntzailea behar da. CVak Gautxo tabernan utzi.
- Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ahal bada, euskalduna. Apirilean hasteko. ☎ **658 742 348 (Nagore)**

ETXEBIZITZAK

- Etxea salgai Elgoibarren. Oso merke: 65.000 euro. 3 gela, sukaldaria eta komuna. ☎ **618 210 899**
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **606 354 982**
- Bi logelatako etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **609 523 426**

- Pisua edo logela hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **653 747 328**
- Duplex bat salgai Elgoibarren. Eguzkitsua eta bistekin. 150.000 euro. Prezioa negoziagarria da. ☎ **602 057 185**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **632 143 239**
- Etxea handia hartuko nuke alokairuan. Bikotea eta hiru seme-alaba gara. ☎ **676 602 481**

BESTELAKOAK

- Spaniel Breton arrazako txakurra oparitzen da. 6 bat urte ditu. Oso lasaia eta esanekoa. Ez du ehizarako balio. ☎ **943 740 628**
- Eibarren kafetegia traspasatzen da, zentruan. ☎ **659 377 095**

OSPAKIZUNAK

- Txikitari bote-boten jolasten zendun? Ubitarten jai, hazi, bizi edo jolastu nahi dezu? Bazkaria otsailaren 28an, Txarriidun. 35 euro ingesatu behar dira kontu korronte honetan: 3035 0007 21 0070703294. Harremanetarako. boteboteubitarte@gmail.com
- 1970ean jaiotako bazkaria, martxoaren 14an, Sigma jatetxean. 55 euro: Bankoa: 0138 0020 1100 10693802. ☎ **607 477 405 / 663 694 896**



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Badira hamabost egun etxea saldu ahal izateko Notaritzan eskatu didaten ziurtagiri bat eskatu niola komunitateko presidenteari. Komunitateko gastu guztiak ordainduta ditudala egiaztatzeko ziurtagiria da, baina presidenteak oraindik ez dit agiri hori sinatu eta jakin nahiko nuke exjitu ahal diezaiokean, edo gutxienez, bere erantzukizuna noraino iristen den.

Presidenteari, idazkariari eta kudeatzaileari pertsona arduratsu eta normal bati eska diezazkiokeen ardurak betetzea eskatzen zaie. Idazkari eta administratzailearen lanak bere egingo dituen etxaldean administratzaile profesional baten erantzukizuna, berriz, handiagoa da, legeak horretarako kualifikazio profesionala aitortzen diolako. Adibidez: Komunitatean obra batzuk egin behar badira, administratzaile profesional horrek ziurtatu beharko du lanerako kontratatu nahi diren horiek legeak ezartzen dituen baldintza guztiak betetzen dituztela kontrataziorako. Baldintza horiek betetzen ez badituzte, administratzaileak bizilagun guztiak ohartarazi beharko ditu hortaz, eta komunitateak erabakiko du gero ohartarazpen horri jaramon egin edo ez. Administratzaile profesionalik ez dagoen komunitateetan, baina, administratzaile lanak egitea egokitu zaion horrek ez du horrenbesteko ardurarik izango eta kontratatutako lanak esan bezala bete direla egiaztatzea mugatuko da bere lana. Zorrik dagoen egiaztatzeko betebehari atzerapenez betetzeak kalte batzuk eragin ditzake, baina komunitateko presidenteari eta administratzaile profesionalaren erantzukizunak ezberdinak izango dira.


AHOLKUA: Presidenteak urtebeteko presidentetza bukatuta badu, eta jarraitu nahi ez badu karguan eta batzarrak ordezkorik izendatu ez badu, komunitatearena izango da erantzukizun osoa.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administratzaile-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **printzesa**, zure zortzigarren urtebetetzean. Muxu, gurasoen, Lurdesen eta Manuelen partez, eta bereziki Manex eta *Bilogitosen* partez.



• Zorionak, **Paul**, igandean 4 urte beteko dituzulako. Ondo pasa eta jaso muxu handi bat, familiako guztion partez.



• Zorionak, **Maialen**, astelehenean 3 urte egingo dituzulako. Pastel handia egingo dugu! Patxo asko, aita, ama eta bereziki zure neba Jonen partez.



• Zorionak, **Haritz**, bihar 4 urte, txapeldun! Muxuak, familia osoaren partez.



• Zorionak, **Mikel**! Gure artistak 7 urte bete ditu! Muxu handi bat, etxekeoen eta bereziki Alex eta Luciaren partez.



• Zorionak, **Jone**, astelehenean 10 urte beteko dituzulako.



• Zorionak **gure pantiñoari**, Marimarren, Juliaren eta Eduren partez.



• Atzo urtetxo bat bete zenuen. Zorionak, **Ekain**! Potxolo-potxolo jarraitu eta jaso musu handi bat zure anaia Luken eta familia osoaren partez.



• Zorionak, **Duna**, gure printzesa! Zure aitona-amonen partez, muxuak.



• Zitzu bizian urteak eta zitzu bizian zeu ere. Seigarren geltokian ospa dezagun. Zorionak, **Luken**.



• Zorionak, **Ibai**, asteazkenean 9 urte bete zenituelako. Familiako guztion partez, muxu handi bat.



Zoriondu ezazu **BARREN**en!

PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: **4'50€**

Argazki bikoitza: **7€**

Hirukoitza: **9€**

Hiru lagunetik gorako taldeak: **15€**

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: **3'50€**

Argazki bikoitza: **6€**

Hirukoitza: **8€**

Hiru lagunetik gorako taldeak: **12€**


Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako)

baino lehen ekarri behar dira

BARRENEKO bulegora,


edo barren@elgoibarkoizarra.com

e-postara bidali.



Gaur **ekintza sorpresa** ludotekan.
Zer ote den jakiteko etor zaitez
17:00etatik aurrera

Hilak 28 larunbata,
Fifa 14 txapelketa jokatuko dugu gaztelekuan.
Izena egunean bertan eman behar da



27 barixakua

Erakusketa

19:00 Emakumeak txuri-urdinez Kultur Etxeko erakusketa gelan.

28 zapatua

Azken zapatuko feria

9:00 Baserriko produktuen salmenta

Kalebarren plazan.

11:00 Txosna

Mintxeta atletismo taldeak jarriko du.

12:00 Kale kantariak

Kalebarren plazatik.

12:30 Gatzatu tailerra

Kalebarren plazan.

Eguerdian Ganadu erakusketa

Aita Agirre plazan.

Idi probak

22:00 Euskadiko finala

Sigmako probalekuan.

Sarrera, 20 euro.

1 domeka

Musika

19:00 Hiri asko bere baitan

Kultur Etxeko sotoan.

3 martitzena

Ipuin kontalaria

17:00 Umeentzako ipuinak

Maite Franco ipuin kontalariak bi saio eskainiko ditu. Udal Liburutegian.

6 barixakua

Antzerkia

20:30 'Palabras'

Hika antzerki taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

Musika

23:00 Big Boy

Sinuosek antolatua, Kultur Etxeko sotoan.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
27 Etxeberria 28 Fernandez 1 Fernandez 2 Yudego 3 Oruesagasti 4 Barrenetxea 5 Ibañez 6 Garitaonandia	Astelehenetik igandera Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Oruesagasti Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)



«Invencible»

27, barixakua: 22:15

28, zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)

1, domeka: 19:00

2, astelehena: 21:30

«Paddington»

1, domeka: 16:30

«Ciutat morta»

(Arnaldo askatu plataforma)

5, eguena: 20:30



CORDON VILARCHAO

San Roke, 7 behea
Pol. Glaso - Glaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 678

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolak ezartzea
Lantutua: eguzi, aluminio, PVC
Pisua orokorra



B

**BARREN
astekarian
943 743 704**

**Jarri
ezazu
zure
publizitatea**



JEXUSMARI BORROKAN ARI DA "B" DOKTOREAREN AURKA

"B" kontabilitatea, BEZik gabeko salmentakampainak eta "black" txartelak eguneroko ogia ditugun honetan, Jexusmari ausartu da terminal fiskal bat instalatzera taxian.



Kamera
ezkutuaren
bideoa

◀ Jexusmari Ubarrokana (Donostako taxilaria)



"A" gizartea lortzeko

**ZATOZ EKONOMIA
GARDENERA**

Ausarten eta super-ausarten bila ari gara

www.ekonomiagardena.eus

#ekonomiagardena



Gipuzkoa
BERRIA



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



Abuztuan irekita

ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Uleldako Unibertsitatea eta Madrilén.**
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizenziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea, Madril.**
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Uleldako Unibertsitatea.**
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**
Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almería, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizenziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Autran Institutoa, Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**
Okulazioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURUAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGONSTONEBRIDGE, AVANTASUD, PADL...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL
clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.dinicairazabal.com